


ZER

273n. zenbakia
orrilla 2002

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**DEUSTO
UDALERRIAREN
IKURDIA**

LATERRI ESKUBIDEKOAK, ALA..... ?

ESATEN DABE DEMOKRAZIA ZABAL-BATEN GAGOZALA, BATZUEN ARRAZOIAK AUERRERA EROATEKO EURAK NAI DABEN ERAAA.

AIN SAKONA ETA ONDO ERPERATUTA DAUAN MENPERATZAILTASUNAREN "ARRA° IZANGO ETE DA BA...? ALA BELDUR DIRA OIÑARTEKO MENPERATASUN BIDETIK LORTU DABENA (DIRUAN) ETA BETI EUKI DABEN AGINTARITZA ORKO BIDETIK. DEMOKRAZIAREN BIDEZ, GEIEN JAKITEN DAUANAK ETA ZEINGEAGOKO LEIAKETETAN IRABAZTEN DAUANAGAITIK ALBORATUTA GERATZIA? ALA BELDUR DIRA BENETAKO ARDIIRARI AURRE EGITEKO?

BALEITTEKE OKERREKO BIDEA ERREZAGOA IZATEA? ETA EMEN ARGI IKUSTEN DANA DA: GAUR DIRUAK DAUKAN IZAERA ORDEZKO EGINKIZUNETAN. EZ DALA GIZON EMAKUMEAK LEENENGO GOGAMENETAN IPINI EBAZAN TRESNERI ORREN ORDEZKO ARDURAK ZAANTZEKO GAUR DAUAN NORKERIEA AUNDIKERIA GORATZEKO BAIZIK.

NIK USTE DOT ORI BAIÑO GEIAGOTSUAGO DALA MORAL-PSIKOLOJIA BATEN ALDETIK BEGITUTA.

EUREN IRUDIMENEAN AZITAKO MENPERATZAIL-AGINTARITZAKO "AR" ORREK EZ DAUTSIELAKO ITZITEN BEREZITASUNEZKO ARRAZOIAK KOKATU DAITEZAN EUREN GOGAMENEKO IRUDIMENEAN, MUNDU ONEN BAKEA EGIZKOA IZAN DAITEN. BEREZITASUNEZKO-GIZADI BATEK, BEREZ DAUKAZAN LOTSAGISUNEZKO ARDURAKAZ ONDO BETETA BAKEZ JARRAITU DAGIAN ARAZO GUZTIAK ONDOEN KONPONDUTA, ALDE BATETIK. BESTETIK: DIRUA EUREN ESKUETAN DAGO EUREN JABETASUNEZKOA IZAN BALITZ: ETA ORREGAITIK DIRUAK EZ DAUKA BEAR DAUAN JOAN-ETORRIREN ASKATASUNA.

BARREGARRIA DA, GAUR IRAKURTEA (DEIA - 2.002'AN EPAILLA'REN 20'AN 13'GARREN ORRIALDEAN), NOLA PP'KOAK EZ DAUKIEN EZEREN LOTSARIK. PETER ZENARRUZARI. EUSKALERRIKO "AUTODETERMINAZIOAGAITIK" IDATZI EGINGO DAUTSIOLA ESATEKO: "NO ES PROCEDENTE RECONOCER EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN DE EUSKADI. COMO NO ES PROCEDENTE QUE IDAHO PUEDA AUTODETERMINAR LOS DERECHOS DE LOS INDIOS" (NER-PERCE) "CON RESPECTO A ESE ESTADO". ETA OR ARGI-ARGI. NON AGERTZEN DAN EURAK ERE BADAKIELA. JOKOZ KANPO DABIZELA JOKATZEN EUSKALERRIAREN AURKA.

NOLA IZAN LEIKE. GAUR EGUNEKO DENBORATAN. JAKINTSUAK DIRANAK ETA EDOZEINEK ULERTU LEIKENA, EUREN JOKOA ERRI-BEREZIEN AURKA MENPERATZAIL-ILTZAILLE DALA.....EZEREN LOTSA BARIK ESATEA? GAURKO INDARRA EUREN ESKUETAN DAGOANA EZ DALA GIZADIAREN ARDURAK BABESTEKO, EUREN SASI-JAINKOTASUNEZKO ELBURUAK BETETEKO BAIZIK?

ZELAN LORTZEN DABE EGINKIZUN ORI?: GAURKO ERREGETASUNEZKO-LATERRIAK EDO LATERRI-BURUAK DAUKIEN INDARRAGAZ ETA DAUKIEZAN ESPAFA INDARTSUN BIDETIK BEREZITASUNAREN BURU-GAIÑETAN IPINITA DAUKIEZELAKO, EGINKIZUN ORREN BIDEZ XAUTZAILLETASUNEZKO BIZI-EKINTZA BATEN BEARTUTA SARTZEN GAITUE. ARTEAN BEAR DOGUZAN MORALA. EKANDLIAK EDO OITURAK MILLA ZATTAN APURTZEN DABEZALA, GIZARTEAREN GIZON/EMAKUME. SENDI.AUZO, LURRALDE ETA ERRI-ABERRIEN ULERMENERAKO BIDE ARGITSUAK IZAN BEAR DIRANAK. EUREN EKINTZAGAZ ILLUNTASUNEZKO BIZI-EKINTZA BATEN SARTZEN DABEZ. MUNDU ONEN SASI-JAINKOTASUNAREN EKINTZARAKO.

ETA GAURKO EKINTZA ORREK ARGI ERAKUSTEN DAUANA EUROPA ETA MUNDUAN. GAURKO LATERRIAREN JAURKINTZAK EZ DAGOZELA GIZON/EMAKUME. SENDI.AUZO. LURRALDE ETA ABERRIAREN BABESERAKO, LUDI ONEN BEREZIZKO LEGEAK ERAKUSTEN DAUSKUN LEZ JAINKOA° REN AGINDIJAK BETE DAITEZAN, IRITSI EDO ERITXI BATZUEN GAI-AMESKERIRAKO BAINO EZ: ORREGAITIK DAGO DANA ANKAZ-GORA EZEREN ZENTZU-BARIK.

ARRIGARRIA DA JAKITURI GEIAGO EZ EUKITTEA. ORREK

GAUZAK ERRIEN AURREAN ITXURA-GABETUKO BERBA BIGUNAGOAKAZ EZ ESATEA, AIN GORDIN IZAN BARIK. BAIÑA BADA DAGO BESTE BIDERIK EDO BERBARIK GAUR ERRIARI IRUZURTZEKO?

MUNDU ONEN IPAR-MENDEBALEAN. IRUZURREZKO BERBA OIEK ASKO ESATEN DIRA ETA EZBERDINTSUAK, DEMOKRAZIA ZABAL ETA AUNDI BATEN GAUDELA ESATEKO. BAIÑA NIK ESANGO NEUKE ATAL-GABEKO BERBAREKIN: "DEMOKRAZIAN EZ DAGOALA IÑUNGO BIDERIK «BAKOITZARI BERE» EMON EZIK"; ORDEZKARITZA GUZTIA. ITZ BERDINTSU, ALAKOTSU EDO ANTZEKO BERBAKAZ BAKARRIK ORDAINTZEN DALAKO.

ORDUAN ZEOZER GEIAGO EGIN BEAR LEUKIE MUNDU ONEN BABESERAKO. ERREGE-LATERRI EDO LATERRI-BURVEN NAGUSIEN ARTEKO JAURKINTZAREN AGINTARIAK. ETA LENENGOENA IZAN BEAR ZANA: "BEGITU", IKUSTEKO NOLAKOAK DIRAN DAUKAGUZAN LATERRIZKO JAURKINTZAK ETA EUREN EGINKIZUNARI, "AITUTEKO EDO ULERTZEKO" ERRIAR GUZTIAREN BAKE-EGARRIAK ZERGAITIK DIRAN ETA NUNDIK AGERTZEN DIRAN.

BIGARREN: "IKUSIZ" JAKITE,KO ARLO GUZTIAK BEGITUTA EUROPAN BAI MUNDUAN ERE, BAIÑA GURE ERRIAN BATEZ BE. ZERGAITIK DIRAN AINBESTE ZEZIO, ERRIARI LAPURTZA BERE ANTOLAMENDUAN. TRISKANTZAK, NORKERI, MENPETASUN. ZIKINTASUNA ARTU-EMONETAN, OITURA. MORAL EDO EKANDUEN UTSUNA, EUSKAL-ETSAI, ETSAIMIN (ENEMIGO MORTAL). ETSAIMENDE (SERVIDUMBRE-PRISIÓN): AINBESTE ZURRUBURRU (DESUNIÓN). EZIÑ-EGON (DESASOSIEGO) ETA ETSIMENDU (DESESPERACIÓN) EGON DAITEN: EUREN IKUSPEGI ORREGAZ BEREALA EROANGO-LEZKIO-LAKO ASMO-ASTERPEN BATERA. ETA AIN-LASTER GIZON/EMAKUMEAREN EDO ERRIARREN ARTEAN "-ZERGAITIK" AGERTZEN DIRAN ORREK BIORKERI-AUNDIAREN AZTERKUNTZARA.

BEREALA IKUSIKO LEUKIE. ARAUETATIK ASITA, GAUZA GITXI DAGOZELA EGON BEAR DIRAN LEKUAN. MUNDU ONEK DAUKAZAN LEGEAK GUK GAITZEKO EDO ARAU-LEZ ARTU BEAR DOGUZANAK GURE BEARREZKO EGINKIZUNETAN BEREZITASUNAREN ORDEZKO-ZENTZUAN AGERTU DAIGUZAN.

BEREZITASUNAREN NORTASUNAK IZAN BEAR DIRA ARDURADIJNAK, BEREZ ORDEZKOAK DIRALAKO ETA MUNDU ONETAN EZ DALAKO JAIOTEN "IÑOR" BETE-BEAR ORREN ARDURAGABE, GAIÑERA LOTSAGIZUN AUNDIAGAZ: BETE-BEAR ORI BAKOTXAREN "ESKU-BIDEA" NAI-TA NAI-EZ DALAKO.

ORREGAITIK. GAUR DAUKAGUZAN JAURKINTZA-BURU GEZUR-EZARLEKO AUEK EZ DIRA GAUR EUROPAN BEAR DOGUZANAK, EUREN JAIOTATIK EZ DIRALAKO BAKEAREN BIDEZKOAK. MENPERATZAILLEAK BAIÑO, DANON ARDURATIK KANPO JOKATZEARREN, EUREN AMESKERIAK BETETAN.

EUSKALERRIAREN JOKOA BEREN ASKATASUNAGAITIK BIDE ONETATIK IZAN BEAR DA, ILLUNTASUNETIK URTETAKO. "ARGIA TA INDARTSUA" BATEZ. ERRIAREN OIÑARRIAK EUREN LEKUETAN EZARTZEKO ASKATASUNA AGERTZEN DANEAN ETXEA ONDO ETA URRENEZ-URREN AGERTU DAITEN BERE EGINKIZUNETAN: ETA KONTUAN EUKI LASTER IZANGO DALA ONDO. ARGI TA BENETAN JOKATZEN BA-DOGU, MUNDUKO AGINTARIAK ETA EUROPAKOAK BATEZ BE, BAI GIZON/EMAKUMEAK ERE ASI DIRALAKO KONTURATZEN. ARDURAK BERE LEKUAN KOKATU BEAR DIRALA ZIURTASUNEAN GURA BADOGU BETE DAITEZAN: ETA MUNDU ONEK IKARAGARRIZKO EGARRIA DAUKA DAUKAZAN ARAZOAK KONPONDU DAITEZAN. GERO TA GEIAGO ITXARON EZ-GERO OKERRAGO IZANGO DALAKO.

ABERRI EGUNA DA DOMEKAN OSTERA ERE, TA GU "BANANDUTA". DATORREN URTEKO "ABERRI-EGUNA" IZAN DAITELA EUSKALERRIAREN EGUNA BERE SEME/ALABAK BATERA. ARGI ETA ZINTZO JOKATZEN DABELAKO. ■

ATUTXA°TAR PAUL.

ZORNOTZAN 2.002'AN EPAILLA'REN 27'AN

EUSKEREA EGUNERIK EGUNERA

Aurtengo martiaren 10n. egunean irakurri al izan dogu DEIA'n Gotzon Lobera'ren idazlan bat eta, egia esan, zer-pentsau emon daust. Ona emen jakingarri batzuk:

- Euskerea salbatzeko gakoa edo "klabe" a bakoitxaren aleginean dago.
- Alegin au ez da bardiña euskeraz erriak egiten dauan lekuetan eta oitura ori galduta dagoan lekuan, Enkarterrian esaterako.
- Gaur euskerea iñoz baiño obeto dabillega esan daikegu, baiña ez bardin, esaterako, iparraldean eta egoaldean.
- Euskerea arremen-izkuntza izatetik ikasle izkuntza izatera aldatu da.
- Euskeraz itz egiten askok jaikin arren, oneik be arremantetan erdera erabilten dabe sarritan.
- Jenteari euskeraren arrotasuna emon bear jako.
- Bizkaieratik batua urrin dago eta or zubi bat egin bear da.
- Euskera batua egiterakoan eredu okerra artu genuen.
- Orain konturatu gara batuak ez dautsola erantzuten gure eguneroko bizi-moduari.

Egun bi geroago gutunen arloan eta Karlos Orueta'k idatzita beste eskutitz bat agiri da: Gernika-aldeko Gauegiz'tik idazten dau eta Ameriketako euskal-etxeetan euskeraz berba egiteko aukera geiago izan dauala diño, emengo bere erri-inguran baiño. Guk epaikari edo juezai eskatzen dautsegu euskeraz berba

egitea, baiña, gero, geuk erderaz egiten dogu berba kalean.

Orra or aldi laburrean, gauzak aldatzen doazela ikusteko agiri bi: Batua berean itzita, geurea, bizkaiera, erabilteko eta bizirik aterateko alegiña egin bear dogu eta orretarako gure euskerea kalean erabili.

Gu eskolara joaten asi giñanean, barruan erderean baiño ez zan erabilten, baiña kanpoan beti euskeraz berba egiten gendun, gaur bestetara da: Ikastoletan euskeraz egiten dogu baiña kanpoan erderaz. Au atzerakuntza aundia da euskerearentzat.

Alegintzen dira, toki batzutan beintzat, erriak euskerea erabilteko bideak zabaltzen, Mungia'n esaterako Euskalduntzen taldeak, eta ortik doa bide zuzena: Latiñaren azkenengo urratsak eskoletan eta Ikastetxe nagusian izan ziran gero betiko galtzeko, izkuntza barden barruan betiko ostenduta bizi izateko. Ez al da olakorik jazoko gure euskereaz!

Olazar'tar Martin'ek



DEUSTO'REN EDESTIA LABUR-LABUR

IKURDIA

"ZER" onen azalean doan ikurdiaren jatorrizko irudia, arrizkoa zan eta Deustu'ko Udaletxearen aurreko orman agiri zan irudi nagusi lez. Ikurdi-arloaren barruan, OTSO BI, ZUGATZ BAT eta BIOTZ BAT zugatzaren orri-artearen, daroaz. Eta kanpoan, inguratzen, lau giltz.

Gaur-egun, Arkeoloji-Etnografi eta Edesti-Museoaren ibiltokian dago.

Barrenean daukan "DEUSTOKO VDALA" irakurgaiari, eta euskeraz gaiñera, beste irakurgai bi ezarri jakoz. Batak au diño: "GURE DEUSTO MAITE" eta besteak: "OTOITZ POLITA DA DEUSTO".

IZENA

Duesto'ko Ikastetxe Nagusian Irakasle izan zan Labay-ru'tar Estanislao Jaime jaunak, bere "Historia General del Señorío de Bizkaia" liburuan, III alean, 15n. orrian, 1401n. urteari dagokionean agiri bat sartzen dau eta agiri onetan Ezkontza onen barria emoten da: Legizamon-dar Mari Enrike anderea, Luzarra'ko Jauna dan Ibañez'tar Lope jaunagaz; eta idazki onetan auxe be agiri da: Luzarra'ko Jaunak Deusto'koa dala diñola eta toki-izen au "Deus" itzetik "deustua" (latiñez eta euskeraz) eta euskerearena dan "usto" itzez osotuta dagoala. Azkenengo onek "orritsua" esan gura dau. Au ziurtatu leike josulaguna dan Mugika ta Berrondo'tar Plazido'ren Euskera-Erdera iztegiaren 11 aletik. Plazido bera Euskaltzaindiaren eta Euskerazaintza'ren kideko da.

MONASTEGIA

"Deustua" izena, XIV gizaldiaren asieran egiña zan Monastegi edo Lekaide-etxe batena zan. Au Luzarra'tik urrean egoan eta gizaldi orren azkenerantza beronen jabeak ziran Etxebarri'ko Otxoa jaunak eta Zorrotza'ko Urraka Andreak Katolikuen Alkate biurtu eben eta Lekaide-Etxea bera Liturji-Katolikuen ekintzetarako ezarri eben, Kepa Deuna Apostoluaren izena ipiñita. Arrezkerro eleiza onen izena Deustua'ko Kepa deuna izan da, orrelan Lekaide-Etxe izan zala gogoratzeko eta kontuan artzeko.

UDAL-ERRIA

Deusto'k bere udaletxea euki arte, inguruko biztanleak eleizako ate nagusiaren aurrean alkartzen ziran eta or egiten ziran batzarren agiriak onelan asten ziran: "Los vecinos de Duesto, reunidos ante la puerta principal de su iglesia parroquial San Pedro de Deustua han tratado y aprobado..." ("Duesto'ko erriarrak, Deustua'ko Kepa Deunaren parroki-eleizako ate nagusiaren aurrean alkartuta, au ta au aztertu ta onertu dabe...").

1755n. urtean Deusto'k bere Udal-Etxea lortu eban.

Duesto'k Bizkai'ko Batzar Nagusietan 35n. jesarlekua eukan, baiña ori lortu-orduko epe luzea igaro zan. Forudun Uriko Agiritegiko jakingariak diñoen lez, eskubide au 1558n. urtean, uztaillaren 5n. egunean lortu ebalako. Eta

egun orretako batzarrera Deusto'ko aldun lez Goiri'tar Pedro jauna joan zan...

Urte beratan eta dagonillaren 2n. eguneko batzarrean Alduna Azkorra'tar Juan izan zan eta 1558n. urte beratako urrillaren 25n. egunean Deusto'ko alduna Jaunerriko Batzar Nagusietan Uria'tar Martin izan zan.

JESUS LUIS DE ACEVEDO GABIKAGOGEASKOA
(2001-12-04'an)

Euskerataillea: OLAZAR'tar Martin

OARRA: Idaz-lan zeatz eta garbi onegaz batera, beste agiri baten argazkizko aldakia dator eta au, euskeratuta, emen jarriko dot. Euskaltzaindiaren idazpurua daroa eta 1992n. urtean, otsaillaren 14n. egunean egiña izanik, urteera lez 286 zenbakia daroa.

ACEVEDO GABIKAGOGEASKOA LUIS JAUNARI
Autonomia 68
48012 BILBAO

Jaun maitatua:

Deusto'ren euskal-izena dala-ta egin dauskuzun eritxi-eskariari begira, atsegiñez bialtzen dautzugu Euskaltzaindiaren Izen Arlokoa dan erizpidea:

1.— Euskeraz berba egiten dauanak geienez Deustu esaten dau eta orrelan agertzen da gure aldi onetako idazkietan be.

2.— Ori orrelan izan arren, jakiña da edestiz datorren izena Deustua dala, eta —a ori mugatzaille lez agertzen dala eta orregaitik Deustuko, Deústuan esaten da Gaiñeraten dan mugatzailleak ba-dauka edestizko idazkera orren oiartzuna.

Arretaz agurtzen zaitu,

J. L.Lizundia
Izen Arloko Batzordearen Idazkariak.

PD. Beste au be erabagi da: Eskerrak emon Acevedo jaunari Euskaltzaindiaren Liburutegirako, Pueblos que mueren izena daroan Gaztañaga ta Olabarri'tar Jesus'en liburuaren ale bat bialdu daualako, or agertzen da eleiz-ate onen edestiaren laburpena. Liburua 1925n. urtean Bilbao'n Usin'dar Jose'ren irarkolan argitaratua da."

Esikutiz orren burruan au dator idatzita: "ESKUTITZ AU GUZURRA DA ASIERATIK AZKENERA ETA EZ DAUKA SAKONTASUNIK". Lizundiak ez dau ezelako billaketarik egin eta ondo agertzen dau itzaltasunik-eza Euskaltzaindiari begira.

J. L.Acevedo
(Izenpetuta)

NORK ATARA EBAN "EN EL MONTE GORBEA"?

ZER'en 269n. zenbakian Atutxa'tar Paul'ek diño Aranburu'tar Luis'ek abesti au atara ebala. Nik entzun dot musikarari maisu onek armonizatu ebala, baña atara, beste gizon batek atara eban.

Erruperto Urquijo, laudiotarrak, ataraten ebazan abesti asko. Berak ez ekien musikarrik baña beti aurkituten eban musikarari bat pentagramara eroateko asmatutako abestiak. Sarri entzun dot abestutea "En el Monte Gorbea" beste abes-berba batzukaz, baña soñu bereagaz. Auxe da Errupertok asmatutako textua:

Al son de los senserros los errebaños van a pastar / y yo pensando en Clara toda mi vida me voy a estar.

Abestiaren tituloa "Lusiano y Clara" zan.

Errupertok beste abesti asko asmatu ebazan. Berak antolatu ebazan abes-berbak be. Onetarako, aldi aretan Audio'ko base-rritarrak egiten eben erderea erabilten eban.

Añua'tar Joseba, orduñatar abertzale sutsuak, katatuten ebazan Erruperto'ren zortziko bi. "Madalen y Patxiko tienen una hija que paice un sol" asten zan bata. Bestea "Cuando vamos al feria con vacas a vender". Beiñolan, aitaren kafera kantatzalle andaluz bi (aita ta alabea) etorri ziran. Funtzioa amaitu zanean, billar maiara (folklorikoak abestu izaten eben lekura) Añua igo zan. Eta euskaldunak ain abesti politik edo politagoak geunkazan jendeai erakusteko, abesti onek kantatu ebazan.

1950'garrengo urtean edo, nere anaiak antolatu eban abestalde bat Santa Agedaren gauan urteteko. Anaiak jakin izana eban Erru-

perto'k txit abesti polita Santa Agedatarako asmatu ebala. Orregaitik Erruperto'ri edatzi eutsen abestia eskatuaz. Orduan Erruperto zaar-zaarra zan. Bialdu eutsen anaiari abestia ta lagundututen eutsen eskutitzean iñoan: "Oraindiño gomutaten naz zure aititak eskatu eustadanean: "erosi niretzat ogei hildots ogetahat errealetan".

Aitite Biktor okelagillea zan eta Errupertogaz artuemonetan ziarduan. Aitite Biktor 1912 garrengo urtean il zan. Orregaitik 1950 urtean Erruperto zaar-zaarra zala, esan dot.

Ez dakit ziur noz asi zan musika asmatzen Aranburu. Au ta guztiz, geroago uste dot. 1946 garrengo urtean Gazteiz'ko marianisten ikastetxean Don Enrike, Luis'en anai nagusia, piano maisua neban nik. Orduan Don Enrike San Migelen Eleizan organu jotzaillea ta Konserbatorio'ko irakasle zan, musikarari ospetsua. Beragandik entzun neban anai gastezaz. Baña onek musika-asmatzalle lez ondiño ez eban osperik. "Lusiano y Clara" abestia, antxiñakoagoa zan.

Gaurko Leendakaria Audio'ko alkatea zala, aipatutako anaia ta biok Audio'ra joan gintzazan. An kuntzertu berezia jotzen eben. Oso-oso Erruperto'k egindako eresiakaz. Orduan anaiak ezagutu eragin eustan alkatea.

Piezak oso politik ziran. Kontzertua amaiturik, alkateak Erruperto'ren alaban gomutaki bat emon eutsen. Alabea Franzian bizi zan eta kontzerturako etorria zan. Adiñekoa zan orduan.

Ibáñez Karlos

LANGILLEARI LAN SARIA

Langilleari lan saria emotea zor berezia da. Zure alorrean lan egiten dalian langilleari, eguzkia sartu baiño len, egunero ko lan-saria emongo dautsazu. Beartsua dalako, bizi izateko lan-saria bear dau. Jaunaren aurrean zeure aurka dei egin ta oben aundi onen astuntasuna zure gain jausi ez dakizun. Dt, 24, I4-I5. Ab, I9,13.

Berezkoa danez, emen, aitatu diran arau guztiak, itzetik itzera, betetu bear direla, ezin esan lei. Baiña Jaungoikoaren gogo danez, arau onen argitasunez ta gogoaz bizi ta lan egin bear dogu. Batetik giza biziak eskatzen dau anaitasun geiago munduan ta bestetik gure bizia ez da amaitzen ta bere lurreko egite guztiekin batera doa betiko bizitzara, ta egite onen erara izango da ango poza, atsegiña ta bakea.

Jende askok uste izan lei. Cure aldiko pentsamentua ez dala ori. Ori atzerapen aundia dala gaur egunerako. Ainbeste gozatze, ainbeste lapurreta, ainbeste zabarkeri dagon aldi ta inguru onetan atzeratute dagozela jokabide orreik... Dirutza aundiak esku gitxitan pillatuta egon bear dabela diñue munduaren aurrerapiderako. Diruak lan eragin bear dau... Ez da pentsamentu makala...

Baiña diruari lan eragiteak zer esan nai dau... Batzuekin baliatzea... Gosezko lanekaz aberastutea... Bear izanean dagozanekin baliatutea... Era orretan gizonaz baliatzea debekatuta dago Biblian. Gizonak bere izerdiz lan eginda bizi bear

dau, Jaungoikoak, atan, aginduta dagon lez. Besteen bearraz baliatzea anaitasunaren aurka doa. Ta trankil trankil, asko bes-tien izerdiz baliatzen dira curen ondasunak geitzeko.

Gure aldian Jainkotiar irakatsi oneik, sarri, beartsuen onerako izan bearrean, batzuen poltzak sendotzeko izaten dira. Ez da nola-naiko eskubidea ondasunak pillatzea. Jabetasun esku-bidea ondasun txikien aldezkoa da. Au da eleiz maisuen irakatsia. Ikus egizu esaterako, Populorun Progresio, Jon Paulo Aita Santuaren Enziklikan. 22 ta 23 garrean.

Jaungoikoak bere seme guztientzat lurra sortu eban, ta menperatu egizue, ez batzuen onean, guztien mesedegarritzat baiño. Aita batek ezin ditu semeak, gosez, ilten ikusi, ta gitxiago beste batzuen nauskeriz. Gure ardura aundia bear dau lurrak. guztientzako janaria emon dagian, ortarako sortua data. Ta ainbeste anai, gosez, galzorian dagozen bitartean, norkerizko aundikeririk ez dau nai Egilleak.

Olan jarraitzen ba-dogu zapaltzen, indartsuen justiziak, eriotzara arte jarraituko dausku negar eragiten. Aurrerantzian, lur, irabazi ta ondasun orreri santuak ezin deitu izango dautsegu. Munduak ondradutzat daukezanak, Jaungoikoak lapurtzat daukaz sarri askotan.

SOLOZABAL'dar Paulin

BIZKAIERA NONTZEBARRIN

Leengo baten egin neutsuen idazkiaren norabide beratan joango da idazki au. Asikerotan argi lotu beite be, bertan azalduko dan guztia neure-neure eritxi eta erispideak dirana. Eurak neure-neureak dirala, zuek be zeuen-zeuenak zeaztu edo, beintzat, argi euki bearko zeunkeez. Eritxi be, aalik eta aldizkaririk omogeneoena egin bearko zeunkeela deritxot, bai berbetearen aldetik baita berbeta ereduaren aldetik be.

Pentsau eizue. zuek egingo dozuena betiko lotuko dana, emeroteketan-eta. Urteren batzuk (asko) barru beste batzuk artuko dabez zuek egin-dakoak eta aztertu egin eta ondorioak atarako dabez. Eurentzako izango zaree sasoi oneetako Mungiako euskerearen lekuko idatzia. Eta izan be, Mungiako euskera eredu idatziaren lekuko izan zeintekeze (izan bearko zeunkee) eurentzako, berbera ori ganoraz eta zeatz-zeatz NONTZEBARRIn agertuten badozue, jakina. Aalegindu zaitze ba!

Esan bear dot be, leengoan aztertu neban aldizkariagaz alderatuta askoz be ohea dala bizkaierari, au da, Mungiako euskereari jagokonez, 49. alean agertu dozuena arena baino. Egin dozuena aurrerakadea, bada, txalotu gura neuke lerrootatik. Txalotu ez eze, biotzez eskertu eta bera ondu eta sakonduten jarraitu daizuela eskatu be.

Gogoan euki, Mungiako euskeraz (bizkaieraz) idaztea edo berba egitea aditza bera erabiltea ez eze (dot, neban, deusut, neuskioz....), berari jagokozan jostkera eta ezaugarri bereziak be erabiltea izan badana. Bata bestea barik ezin bizi leitekez alkarrengandik asago. Bizkaieraz, eta batez be Mungialdean, bizi-bizirik dagozan berbak eta esapideak ezin baztertu. ezin ostu leitekez.

Leengo aldiakin eragin neutsuen lez, nire eritxi apalean, leenengo-leenengo Mungialdeko euskereari emon bear jako bidea, gero, bizkaiera osoari eta, azkenik, besterik ezinean, osterantzeko euskalki eta erderei. Ori izan bearko leuke Mungiatik Mungialderako dan aldizkari euskaldunaren berbeta jokabide nagusiak.

Ori jokabideori nagusitzat artu ezkerotan, urrengo erispideok be kontuan euki bearko zeunkeez aldizkaria idazterakoan:

—Mungiako betiko euskera jagon eta erabili, aldizkaria, etorkizunari begira be, aren idatzizko ispilua izan daiten.

—Berbeta eredu orretara bildur eta aurre-eritxi barik parajetu. Erriaren (zaarren) agozko eredu bizi-bizia idatzizkora ekarri, erriarrek eurena ikusi eta bizi daien.

—Berbeta kontu ori dala eta, artikuluen euskera omogeneoa egin. Orretarako zuzentzaile-egokitzailea izendatu bearko zeunkee, eredu orretan jakituna, jakina.

Badago, oraindikararen, bizkaieraren erabilkerea dala eta, bertan zer obaturik, zer egiterik. Artikuluak bizkaeraz idatzita egon arren be, bertan agiri dan bizkaierera oraindikararen interferentziek txipristinduta dago. Azkenengo aleon be, batzuetan, bizkaieraz bizi-bizirik dagozan berbak eta esapideak, leen esan dodan lez. baztertu, ostu eta areen orde gipuzkerei arean lekutzua egin jakolako daukat.

Pentsau eizue, Mungiako euskera (bizkaierera) euskalki bizi-bizia dana eta ezaugarri berezienak oraindikararen bizirik ditua. Mungialdeko zaarren bizkaiera gozoa eta aberatsa orriotara ekarrikeran, orduantxe izango dozue, berbeta mailan, lorpenik andiena. Berbeta biziaren mundua eta mundu ikuskerea orriotara aldatu. Zoritxarrez, ikastoletan eta eskoletan irakatsi eta irakasten ez dana edota irakasten jakin ez dakiena.

Goian esandakoa aztertuko dozuelakoan, eskerrik asko eta urrengora arte.

ALDAERA LEXIKALAK

agerian	agirian	ao	ago
amets	ames	antzina	antzina
arraultza	arrautza	atera/atara	atara
bakoitz/bakotx	bakotx	berrilbarri	barri
eduki/euki	euki	e/izate	eleizate
elkarte/alkarte	alkarte	erabaki	erabagi
erabilera	erabilkera	euskaraleuskera	euskera
gaineratu	ganeratu	asieran	asikeran
inoiz	inoz	izaera	izakera
kanta	kantu	lore	lora
noiz	noz	noizik	nozik
osagai	osogai	sorta	txorta
-txo	-txu		

Ezkerreko zutabeetan zuek idatzitakoa agertu dot: batzuetan eredu batera (eduki) (batua-gipuzkera), besteetan bestera (euki) (bizkaierera) idatzi dozue. Eskumako zutabeetan gure eredia agertu deusuet (euki) (bizkaierera). Or bateratasunik eza agiri-agirian dago. Azpimirratuta dagozan berbak nik egin neutsuen arteragoko idazkian agertu ziran bein.

LEXIKOA

oniolatu	eratu/atondu	antolatzaile	eratzai le
berreskuratu	aztera eskuratu	bidali	bialdu
bilatu	bila ibili	debekatu	galazon
desadostasun	bat ez etorte	esnegain	kipur
gertatu	jazo	grina	jokerallera
aur	ume	it; aldi	berbaldi
izketagai	berbetagai	izkuntza	berbeta
iztun	berbadun	urbildu	parajetu/urreratu

idea	asmo	irla	ugarte
jarri	ipini/imini	kezka	ardura
lan	bear	<i>mende</i>	gizaldi
nai	gura	<i>oitura</i>	ekandu
oraindik	oraindino(karren)	oroigarri	gomutaki
primeran	itzelean	sarrera	sartukera
sorrera	sortukera	sortu	eragin
xeetu	garandu	zaindu	jagon

Ezkerreko zutabeetan zuek idatzitakoa agertu dot: (debekatu) (batua-gipuzkerea). Eskumako zutabeetan gure eredia agertu deusuet (galazon) (bizkaiera). Berton goian aitatutako erispidea artu dot kontuan: Mungialdeko euskera - bizkaiera osoa - beste euskalkiak erderak. Azpimarratuta dagozan berbak nik egin neutsuen arteragoko idazkian agertu ziran bein.

IZENAREN MORFOLOGIA

-A+A: -EA: idatzizkoan ori amaieraori onartuko neuke, Mungialdean, agoz, iru sistema nagusiak alkar egin arren, areen da: -ea, -ia, -ie. Aldizkaria, ostera, geienetan -ea erabilten dozue, batzuetan, barriz, -a erabilten dozue, batuan lez. Or be aldizkariak omogeneoa izan bearko leuke. Uste dot bizkaierearen berezitasun orreri eutsi bear jakola, agozkoa alangoxea da eta. Nominatiboari eutsi ez eze, sistemea-ri jagokon deklinabide osoari be. Alan bada, urrengook erabili dozuez:

ardurea - aukerea - Birjinea - denporea - egoerea - erabilerea - *crea* - euskera - inkestea - mezea - musikea - pertsona - plazca - prestakuntzea - sarrerea - txosnea - urtekerea; egoerearen - euskerearen - sardinearen; euskereagaz - asikereagaz.

Beste alderdi batetik oneexek be agertu dozuez (gorriz eurok gure sistemara ekarrita):

berbak	berbeak	Birjinaren	Birjinearen
bizitza	bizitzea	leiaketaren	leiaketearen
obra	obrea	pelotari	peloteara
txapelketagaz	txapelketeagaz		

-ZINO/-SINO atzizkiak: geienetan ondo erabili dozuez, Bizkai erara erabili be, gitxi batzuetan izan ezik. Or be erispidea batera ekarri bearko zeunkee.

bertsino - *emozino* - erredakzino - fundazino - grabazino - informazino - inmigrzino - kondizino - konpasino - lezino - maketazino - transmisino.

Baina, baita oneexek be:	informazio narrazio	informazino narrazino
--------------------------	------------------------	--------------------------

-TXU atzizki txikigilea: -txu txikigilea gure alderdikoa izan arren, -txo erearen alde egin dozue, agoz gurean inon be esaten ez dana. Ganera, ezin aaztu leiteke gure alderdiko toponimia argia: Agarretxu, Errekatsu, Errotatsu, Etxetxubarrri, Olatxu, Olatxukoerrotta, Orueta-txu, Otsategitxu, Tabernatxu, Ugaldetxu, Uriartetxu, Zaitutxu,... baita San Pedrotxu eta San Antontxu jaiak be. Zuek ostera oneexek eka-ri dozuez:

ataltxo	ataltxu	gauzatxo	gauzatxu
gaztetxo	gaztetxu	amaikatxo	amaikatxu
makinatxo	makinatxu		

Onen garrean oneexek be ekarri dozuez:

anekdotatxu - amaikatxu - *erritxu* - markotxu - osteratxu.

-GANDIK/-GANA ablatibo/adlatibo biziduna: gure zaarrek traslazino fisikoa bakarrik dagoanean erabilten dabez orreek biok, osteran-tean, bizibakoak erabilten dabez. Zuek agertu dozuen au:

Aitita-amamakandik lobengana doan katea.

Aitita-amametatik lobetara doan katea.

BI zenbatzailearen lekua: beraren lekua izenaren edo adjetiboaren eskumaldean da gure alderdian, bein be uts egin barik. Zuek, oste-ra:

bi kondizino	kondizino <i>bi</i>
--------------	---------------------

-ERI datibo mugabakoa: argi eta garbi Mungialde osoan -eri dana, eta inoz be ez -i. Zuek, ostera:

ainbat euskalduni	ainbat euskalduneri
-------------------	---------------------

Zenbakien idazkerea: agozkoari eta Bizkaiko tradizioari jarraitu bearko zeunskiee. Zuek:

laurogei	<i>larogei</i>
----------	----------------

BATEN denporazkoa: gurean momentu baten, apur baten, egun baten, eta olakoak entzungo deutseguz zaarrei, egundo be ez batez ber-bea erabilita. Zuek, baina:

momentu batez	momentu <i>baten</i>
---------------	----------------------

BERATAN berbea: berau gure alderdiko berezitasuna da. Nire eritxi apalean, berean baino zaarragoa eta, gallera, bizkaierearen muga-bakotasunagaz bete-betea bat datorrena (gerizpetan, ezkerretara, uretan,...). Gurean ez da berean berbarik zaarren artean entzuten (aldi beratan, etxe beratan, ordu beratan,...). Zuek:

era berean	era beratan/aldi <i>beratan</i>
------------	---------------------------------

EUSKEREAA

-TAR/-DAR atzizkiaren lekua: or zaarrak argi be argi darabile au (frantses euskalduna). Beraren lekua, izenaren aurretik. Zuek:

une europarra *europar urtea*

BE/BERE lokailua: era bietara erabilten da gurean. Uste dot be geiagotan erabiltea komenigarri dala, bere genitibo erreflexiboagaz ez naastetako. Aaztu barik, gurean genitibo izenorde indartua beraren **dana**.

BERAREN izenorde indartua: **batua dala-eta**, gazteek **gero eta txarrago** jokauten **dabe** beraren izenorde indartua, **bere** biurkariagaz naastau egiten dabelako. Gure alderdiko **zaarrek**, **barriz**, **berbetearen berezkotasuna dala-eta edo**, **ederto baten jokauten dabez** bitzuak, **uts** egin barik. Zuek, **ostera** (esaldion oker bat baino geiago badagoz):

Dukea *asaratu* egiten da eta *obra bere* erara *amaitzeko* aaleginduko da.

Dukea *asaratu* egiten da eta *obrea beraren* erara amaituten aaleginduko da.

-REN GANEAN aposizinoa: esangura berekoen artean au da gure alderdian zabalduen dagoan aposizinoa. Ez dot uste, ganera, -ri buruz dalako ori gurea danik. Ez dago txarto, baina, ... lar be lar entzun eta ikusten da geurearen kaltetan.

-ri buruz *-ren* ganean

ADITZAREN MORFOLOGIA

Adizkerak: arlo onetan ez dot uste erispide argirik daukazuenik, adizkera saltsatxua ikusi dot-eta. Batzuetan, erriak darabilzan adizkerak, beste batzuetan bizkaiera osotuarenak. Zer gura dozuen zeaztu bear dozue leenengo-leenengo. Esaterako, berton errikoa dakartzue:

dituzanak dituanak zituezan zituen (eurek)

deutsegu/dautsegu deutsegu
eutsien/eutseezan eutseezan

Baita bizkaiera osotua be badakartzue. Baina errikoa agertu gura badozue (eurek/eurak), Mungiako -EA sistemeak or jokauten dauana jakin bear da:

daukie daukea eutsien/zan eutsean/zan
leikiez leikeaz leukie leukea
zeinkie/z zeinke/z

Aditza eta jostekerearen arteko loturak -A- eta -E-: or naaste-borraste andia dago, batuaren eraginez. Onetan tradizioari jarraitu bear-ko geunskiolakoan nago, au da, aditza bakarrik -r edo -l amaierara daukanean -E- (datorrela, dabilena) loturea erabili, osterantzeko guztictan -A- (dauala, dagoana, dauzana, dan, dodala) loturea. Zuek onetan naaste -borrastearen ispilua dakartzue, bateratasunik eza, atan be:

dauela dauala dauen dauan
dauena dauana dauenez dauanez
zeinkiezala zeinkiezala

Beste batzuetan oneek be agertu dozuez: dauala - dauan - dauana - dauanez - dagoala.

-AU/-IDU amaieradun partizipioak (mailegutan batez be): batuaren eraginez, berton gure berbete nortasunaren kaltetan jokauten dogu gero eta geiagotan. Areen ordeze -TU amaierara erabilten asi gara, gure zaarren berbetatik asagora joanda. Zuek:

naastu naastau konbenzitu konbenzidu
autseztatu autseztatu
pentsatu pentsatu
prestatu prestan
salteatu salteau
tapatu tapatu

Zuek beste batzuetan: animau - pasau - prestau - sobrau - zerbidu.

-ETAN/-TEN amaieradun aditzizenak (mailegutan batez be): -au edo -idu amaieradun partizipioen aditzizenetan erabilten doguz -etan eta -ten atzizkiak urrengorik urrengora. Jokera ori nagusi-nagusia da Mungialde osoan. Zuek onexek dakartzuez:

ensaiatzen *ensaietan* konbentzitzen konbenziduten
arrapatzen *arrapetan*
Baten agertu dozue hau: kantetan.

LEITEKE/GEINKE aditzerak orainaldian be bai: gaur egun orainaldikoak idazten dira sarritan (daiteke, daikegu,...), baina agozkoan antxina galduta dagoz. Erriak ulertu egiten dauz, baina apur bat lekuz kanpo lotuten da norbera eurak erabili ezkerroan (agozkoan batez be). Erriak darabilzanak erabiliko nukez nik neuk idatzizkoan be: leiteke, geinke,... Erriari parajetu. Zuek:

daiteke/z leiteke/z

Onegaz batera, agozkoan leike/lei adizkerak erabilten dabez batzuk leiteke eta antzekoak adierazoteko. Baina zaar askok oraindinokarren leiteke eta osterantzeko adizkerak ondo jokautera erabilten dabez. Nik uste dot jokera txara baztertu bear dala. Zuek:

egon leike egon leiteke

MORFOJOSKERA

-NA osogarrizkoa: bizkaierearen, batez be Mungialdeko euskerearen, berezitasunetariko bat da. Zaarrek sano ondo jokaturen dabe ori. uts egin barik, mundu ikuskera berezia daukelako. euskal sena, atan be. Eskola-ikastoletan ez dabe berau ondo aparetan. aurki, euskeraz eskolatutako ume-gazteen agoetan ez da-eta baten be entzuten. Galdutzat emon bear da? Ez, jakina ezetz!

Aor zer dakarzue:

badakizue -LA	badakizue -NA
ez da aaztu bear -LA	ez da aaztu bear -NA
ez da denpora askorik -LA	ez da denpora askorik -NA
ez daukagu dudarik txikerrena be -LA	ez daukagu dudarik txikerrena be -NA

JAGOKONEAN/JAGOKONEZ bi dira: bata denporazkoa da eta bestea erazkoa. Sarritan bata besteagaz naastetan dabez eta lorrina sortuten dabe. Zuek:

Nontzebarriri jagokonean

Nontzebarriri jagokonez

FALSE FRIENDS

1	2		3	4
jarri	ipini	#	jarri	eseri
kezka	ardura	#	kezka	liskar
osagai	osogai	#	osagai	sendagai
olatu	osotu	#	osatu	sendatu

Gorri dagoana bizkaieraz dago, baltzez dagoana batua-gipuzkeraz. 1. zutabekoa zuek idatzitakoa da, baina bizkaieraz berba orreek bestelango esangurakoak dira, sarritan baragarri lotuten da areek erabilia idatzi edo esaten dana bizkaitar batentzako. esaterako:

"Osagile batzordea osotu zan atzo". (Gaixorik egon ziran danak, ala? Osagileok nork osatu?)

4. zutabean zuek idatzitako berba orreek geuretzako dauken esangurea agertu dogu.

EGOKIAGO

* izartxua agertuten danean, txartzat emon bear dira zuek agertutako berbak. Besteetan bizkaieraz egokiago dagozan berbak dira, erde-rea zein beste euskalkiakaz alderatuta. Garbizalekerietatik asago, berbetearen kalitate duin eta egokia lortu bear da, batez be. Erriak berak berba orreek ulertuteko gauza izan eta ezelango arazorik ez dagoanean.

*bakilla	bigantxa
*batzutan	batzuetan
debalde	doan/doarik
*egon leike	egon leiteke
*erreportaia	erreportaje
*ezkenatoki	agertoki
*gogoak euki	gogoa euki
*-teko aalegindu	-ten aalegindu
*txapelketa ospatu	txapelketea egin/jokatu
Zelanda Berria	Zelanda Barria

Mungialdean oin esaten dogu, orain esateko; baialbaie, baina esateko; da/ta, eta esateko: eta abar... Uste dot onakoak idazterakoan tradizioari eutsi bearko geunskiola: orain baina, eta.... Erria. ganera. aspalditik dago azkenok entzuten (irakurten) oituta, eleizetan, esate baterako. Zuek, baina:

oin	orain	oindino	oraindino
oinekarren	oraindinkarren	oingo	oraingo
oingoan	oraingoan	ointxe	oraintxe

FONETISMOAK:

Bustidura ori -itt- sano polita eta berezia da Mungialdeko agozko euskeran, gure alderdiko eskola-ikastola-euskaltegietan agoskatuten irakatsi bearko leukeena. Idatzizkoetan, ostera, nik neuk mugatuko neuke aren erabilkerea: beti beste nonork esan dauana zelana esan dauan agertu gura badogu.

aitatu	aitatu	aittite	aitita	ittota	itota
--------	--------	---------	--------	--------	-------

AZKEN OARRA

Sano ondo deritxot Mungialdeko diran berbak eta esakerak eurrez erabilteari. Apurka-apurka bazabilze eurak erabilten; armin, asago, atzerik-ara, bere artean, gesu baten, bear ez danen bat, ilundi, iretargi. karraderan, koiu, lebarik ez euki, ospotsa, paraje.... Baten batzuk jokabide orregaz bat etorri ez arren be. uste dot aldizkariak informatu ez eze, euskera on-ona irakatsi egin be bear dauala, bertokoa, atan be.

ABERTZALE IZATEAREN BETIKO PEKATUA

(2N. SARIA)

– Jeiki, motillak, berandu egingo zaigu-ta.
– Seirak al dira, ba?
– Joko zuten onezkero eta badakizute zazpiretan nun egon bear degun.

– Bai, badakigu; baña, ez al da dana alperrik izango?
– Ikusi barik, jakin ez.

Kaleak illun daude eta Urrilla aurrera doa; gaur domekea da eta gure iru apaizgaiok "Animen Ostatua"n. lo egin dabe. Presaka dabilta Gazteiz'ko kale zaarretan gora Gotzai-jauregiaren billa.

– Ordu-laurden bat falta da zazpiretako eta onezkero gure jaun Agurgarri ori gure zai daukagu.

– Gu joan bagoaz; baña, jakin ez jaun orrek zer egingo dizun.

– Atzo arratsaldeko berriak ez ziran ain seguruak izan...

– Ikusi egin bear; beste irten-biderik ez daukagu.

– Dana dala eta dena den, laister azalduko da zertan geran.

Dan, dan, dan jo dute ate ederrean; morroiak iriki eta, besterik gabe, aurrera joateko agintzen die. Zurubiak gora, jauregiko kapillatxora. Apaizgai zaarrenak alba zuria jantzi eta estola orlegia lepo inguruan ipiñi du.

– Orlegia itxaropen kolorea dok.

– Oraintxe bertan ikusiko dogu ala dan ala ez.

Gotzaia sartun da kapillatxoan dotore jantzita eta mitra zuri-luzea buruan duela. Aitaren eginda, asi ditu bere zeremoni bereziak... Ordu bete ari da, olio sagaratuakin eskuak igurtzen asten danean:

– Onezkero seguru dok.

– Alan dirudi.

– Gotzaiak ez zeukak atzera-martxarik.

Ez orixe. Aupa gu ta gutarrak!

– Orren billa etorri gara, bidean, onerañio.

Bederatziak jo dute aldameneko Katedralaren torrean; bi ordu Gotzaiak bere zirimoni amaigabeari amaia emon dienean.

– Auxen izan dok luze!

– Belaunak zeuzkat izurratuta eta tripea utsik... Consumatum est.

– Ainbeste ordu baraurik, badaukat oraintxe gozaltzer joateko amorrua.

Poztu gaitzen, apaiz berri bat bada Euskalerrria'n. Baña, urduri dago eta jakin-miñak bultzata, onela eraso dio aurretik ezaguna zuen Zirimoni Maixuari:

– Egia al da ez zendutela ni apaizteko asmorik?

– Bai; egia da.

– Zergaitik?

– Abertzalea zeralako.

– Abertzalea izaten diraut eta, orduan, zergaitik ordenatu nauzue?

– Bidali zenduen telegramagatik.

Arri-ta-zur gelditu nintzan une aretan; baña, zer arraio, tripa-zorriak nebazan garraxika gosearen gosegaitik eta "goazen bapo gozaltzera" esan nion nere buruari eta inguruan neuzkan lagunei eta alaxen jeitzi giñan ostatura barruko penak uxatzera.

Osteguna zan egun ura, Urrillak 14, eta udazkeneko aize epela adarretako orrietan murmurioka. Pozik netorren kuarteletik etxera amari berri gozo bat ematera: naiz eta gerrate bizi batean ibilli, amar eguneko baimena eman zidaten gogo-jardunak egin eta apaiz-mallara igotzeko.

A ze poza nere amarena ori entzutean! Senarra itxasoan, bi seme soldadu eta irugarrena seminarioan apaiazgai eta bera etxeko bakardadean. Nolako ordu ederrak igarotzen ari giñan bazkal-ostean alkarrekin, kaleko atea jo zutenean. Jeiki nintzan maatik eta atea irikitzean, Korreos'etako mezulari berezia aurkitu nuen aurrez-aurre. Paper urdin bat eskeiñi zidan eskuetara. Amak ez zidan ia irakurtzeko ere astirik eman:

– Zer dek or?

Erakutsi nion paper urdiña eta irakurri orduko, asi zitzaidan negarrez zotinka. Ez zan ixiltzen eta onela esan nion:

– Ama, ez negarrik egin.

– Ez negarrik egin; ez negarrik egin; oiek al dira ama bateri esateko itzak, semea gerratean iltzen zaionean?!

Ez neukan une artan negar egiteko astirik: ildako gorputz ura billatzea etorri zitzaidan burura tximista baten antzera. Amaren anai gaztearengana jo nuan: sasoiko gizon gaztea, erriko alkate izendatua botoen bidez. Alkarrekin egin genduan egitarau bat: Lenengo ta bat, paper urdiñak zion errixka ura nun zegoen aurkitu; bigarren ilkaja bat, bi atxur eta zaldi-manta sortu; eta irugarrenez, taxi bat billatu nun-edo-nun.

Errixka 500 kilometrora zegoen, il-kaja eta besteak errian bertan; bañan, taxi bat ez zan agertzen iñundik ere. Libre zeuden automobil txikiak frentetik ildakoak ekartzen zebiltzan. Illunabarrean 30 kilometrora aurkitu gen-



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

duen taxi librean; baña, ibillaldi luzea eginda zetorren etxera frentetik eta ordu batzuek bear zitun berriro bidean bere burua jartzeko. Ondorengo egunean, ostirala, agertu zan gure etxean goizeko iruretan. Zai-zai geuden osaba eta biok ura agertu zanean. Tl-kaja atzetik zeukan apaltxo batean lotu kotxean eta abiatu giñan zoroa zirudien abentura batera: bosteun kilometrorra zegoen mendiren batean, gorpu bat billatzera.

* **

Goizeko iruretan irten eta arratsaldeko bostetan eldu gintzan errixkara. Dozenerdi bat etxetxo enparantza baten inguruan. Biotza goibeldu zitzaidan bat-batean: Anboto antzeko aitz gorriak genduzkan begien aurrean. Nola billatu gorpu bat aitz-arte oietan? Eta, aurkituta ere, nola ekarri automobillera? Oldozmen beltz oiek buruan nituala, zera gogoratu zitzaidan: gure kuarteleko frentean zeuden batalloiek bazutela, frentetik at, bulego bat idaztiak ara biartzeko eta andik artzen genduzen eskutitzak eta bestelako agiriak. Aurretik zetorren baserritar bateri galdetu nion:

—Aizu, gizon, ba'aldakizu or frentean dabilzan batalloei oiek emen bulegorik bai ote duten?

—Bai, batek etxe txiki orretan du, lenengo solairuan.

Egun-sentia sortu zitzaidan barnean. Or ote dago nere anaiaren batalloiarene ofizina? Joan nintzan etxera, solairura igo, atea zabalik zegoen eta pasilloaren azken muturrean sarjento bat beigañean eserita, gaxo, soldadu bat aldamenean zuela:

"Ceriñola" batalloikoak al zetare?

—Bai, ala Bera. Eta zer nai zenduen?

—Gorpu baten billa nator.

—Zer gorpu?

—Nere anairena. Ni Fulano naiz.

—Pentsatzen nuen etorriko ziñetela billa; nere kidekoa zan, nere antzera gerratean egindako sarjentoa eta orregaitik gorpua nun sartu duten ardura artuta nengoen.

—Eta nun da ba, gorpu ori?

Illerrian. Soldadu onek lagunduko dizu ara.

—Biotzetik eskerrak! Ez dakizu ondo zer mesede egin didazun.

Nere barneko egun-sentia eguzki bete biurtu da une onetan. Biotza kantari asi zitzaidan pozaren-pozez: gure abentura zoroa, gauzatxo erreza gertatu zaigu ustekabeen. Eskerrak eman nizkion Jainkoari biotz-biotzetik, amari bere semearen gorpu eramateko gai nintzelako; ez bait da gerra batean gauza negargarriagorik amarentzat, semea il eta nun dagoen sekulan ez jakitea baño. Nere amak jakingo du bere semearen gorpu nun dagoen: berak erositako illobian, berbera ara joango zaio egunen batean, alkarrekin egoteko... Orretxegaitik neukan gogoa pozez dariola.

Joan gintzan illobira soldadua lagun genduela eta illerriaren nagusi kabotxo bat agertu zitzaigun. Zillarrezko bost duro aundi, esku bete zillar, eman nizkion aurretik ezer esan barik eta gero onela esan nion:

• Gorpu baten billa nator.

• Zer batalloikoa?

• "Ceriñola"

• Zulo onetan zazpi daude eta beste onetan, berriz, amaika. Nundik asi?

• Amaika dauden zulotik.

Atxurrakin lurra arrotzen asi zan; lurra axalekoa baka-
rrik eta lenengo gorpu agertu zan kakiz jantzita... -"Ori ez da"- Ondoren bigarrena, irugarrena, laugarrena, bosgarrena. Oiek ez ziran. Seigarrena mando-manta baten bilduta zetorren, burua ezalita, bañan oiñak agerian:

• Orixe da!

AZKENENGO ARRAIÑA JATEN DOZUNEAN, AZKENENGO LANDAREA IGARTZEN DANEAN, ORDUAN, BAI, ORDUAN JAKINGO DOZU DIRUA EZ DALA JATEN.

AMERIKETAKO INDIARREN ESALDIA

Esan nion pozik. Iru egun egon ziran mendian ilda bi frenteren erdian eta irugarren egunean moroak aurrera jo zutenean nere anaiari zeuzkan guztiak arrapatu zizkioten eta billotsik laga... Baña, ni gorputz baten billa nebillen eta gorpu antxen neukan nere eskuetan. Uraxe zan nere gordailurik aberatsena eta arritzekoa dana, au da: Bostetan errixkara eldu eta seiretan eritik irten genduela. Ordu bete gorputz bat billatzeko frentea batean... Miraria ez ba'da, mirariaren antzekoa bai, beintzat. Bidean atsedean artu; gorpu garbitu eta jantzi... amari eskeintzeko.

*

Illetak eginda, kuartelera bueltatu nintzan Konpañia'ko Kapitanari eskerrak ematea; berak eman bait zidan amar egun gogo-jardunak eta apaiz-ordena artzeko. Ez zizkidan gogo onez eman; baña, eman naiz eta bere barruko samiaña agertu aurretik:

• Ya tenemos un cura separatista más.

Gotzaiak, berriz, ez ninduen apaiz egingo telegrama bat tartean izan ez ba'litz. Telegrama au:

• "Gogo-jardunak egin bearrean, nere anaiaren gorpu-billa noa frentera"

ANES ARRINDA

LEGE ZARRAK KENTZEN

4.- II ISABEL ERREGINAREN ALDIAN (1843-1868)

II Isabel Erregiñea liberala zan eta berez lege-zan-en aurkakoa, baiña erregiña potola au ez zan ain arerio agertu.

Euskaldunak eskatu eta eskatu agertzen dira, baiña besteak nor agintzen dagoan, batzutan emon-gurean eta beste batzutan kentzen: Zelako nasteak urtetan dauan beti guk geure eskubideak eskatzen doguzanean! Idazki au idazten nagoanean diardue gaurko Ekonomi-Ituna barriztatzen eta orduko gorabera bardinak ikusten dira: Europan euskaldunak lekua eskatzen dabe itunaren barruan eta Montoro ministroak ori eskatzen dan artean ez dagoala itunik. Gaur kendu dabe baldintza ori eta ministroak oraindiño ezetz diño. Antzeko gauzak bein eta barriro ikusten dira aldi aretan be.

Eragozpen bat agertu jaken orduan: Naparrak errez burua makurtu ebela eta ori ipinten eukuen eredu lez. Gaur be ba-dago olako zerbait!

Espartero zan gure areriorik gogorrena, Bergaran emon eban berbea zaindu gurean: Forua bai, baiña España'ko Laterri-legeagaz batera dagon neurrian.

Kendu eben Espartero eta Narvaez ipiñi agintari. Barriro asi ziran foruak ezarten, Erregiñea alde zala: Forudun aldundia, Gernika'ko batzarrak, epailariak eta abar.

Narvaez'egaz eta forudun giñala amar urteko bakealdia izan gendun, baiña Espartero'ren Bergara'ko agindua kendu barik (1844-1854). Beste Guda bat sortu zan. Karlostarren II guda.

1844-05-13'an Guardi Zibillak sortu ziran Españan eta ona be ekarri ebezan, emengo miñoiak eta Mikeleteak baztertuta. Orain Ertzaiñak lortu doguz.

1849'n amaitu zan II Karlostarren gudea.

Gernika'ko batzarretatik lege zarra osorik ezartzea eskatzen zan, Espartero'ren aginduaren bigarren atala (laterri-Legeagaz batera dagozan neurrian) kenduta.

Baiña or zeatz barriak agertzen dira: Orain tabakoaren eta gatzaren zergak dira arazo eta arlo onetan erabagia artzeko epea sarritan luzatu bear izan zan.

1862n. urtean, orrillean, Gasteizko eleizbarrutia sortu zan ara zer esan eban Kalzadako Txomin Deunaren Aba-

tak; "Zaingoa badauke; Legegintza be bai, eta orain Gotzaintza emoten jake. Dana dauke aske izatea lortzeko"

Garrantzi aundiko beste arazo bat be bai: Irakaskintza: 1857-09-09'an agertu zan Moiano-legea, 1° ta 2n. mailla-ko irakaskintza Laterriaren ardurapean ezarteko. Len alkateena ta korrexidorearena zan eskubidea baiña oraindik aurrera Maisuak izendatzea Madrid'en esku geratzen da eta Euskalerriko irakasleak España'ko eskalafoira sartzten dira emengo irakasleak ara eta angoak ona erabilteko eraz: Non geratzen da gure euskerea?. Aldundiak goibegiratzea eta irakasleak izendatu eta ordaintzeko eskubidea eskatu eban, guztiak euskeraz berba egiten jakitekotan eta kanpoko irakasleak eta euskerea ez dakienak ez artzekotan, baiña alperrik.

Arrisku aundian eta eurberan doaz gure eskubideak! Ez da arritzekoa olako giro larrian Sabino Arana Jango errigin zur eta adoretzu bat agertzea.

II Isabel'en gogoaren aurka, trenai egokien zergea ezarri eben. Lenago kuota bat zana, orain zerga biurtzen zan.

Agintariak ez eben onartzen Espartero'k Bergara'n emon eban berbea: Lege zarra ez kendu, laterri-legera egokitu. Agintarien amorrua lege zarrak kentzekoa zan.

SANCHEZ SILVA ETA EGAÑA EZTABAIDAN

Sanchez Silva senadore andaluziarra zan foruen etsaierik gogorrena agintarien artean eta oraingo onetan arazo barri au agertzen da: Abadeai nok ordaindu bear dauksen, laterriak ala forudunak.

Ez dakit arazo au zelan sortu leiteken, eleizearen ondasunak laterriak kendu ebazan ezkeru, urte gitxi zira-la.

456 abade ziran Euskalerrian eta bakoitxari 10.112 errial emon bear jakozan eta ori laterriak ordainduko eban probintzietan, baiña forudunak agintzen dabenetan? Sanchez Silva'k probintzi euskaldunak beti izan dirala



España diño, aldi labur batzutan izan ezik.

Egaña foruzale arabarrak emon eutson erantzuna gogor: España guztiko izparringiak askatasuna dauke foruen aurka nai dabena esateko, baiña Euskalerrikoak (Irurac bat, La joven Guipuzcoa eta El Eusca1duna)

"zensura" dauke. Bergarako ituna artu eta bete bear dala diño eta ez sartu edesti-arloko eztabaida

Franzisko Lersundi (Foruzalea)

labanetara: Forua sendo itzi eta egin bear diran aldakuntzak egin laterri-legera sartzeko. Ez diño probintzi guztiak bardiñak dirala lege orren aurrean, aldakuntza labur batzuk egin bear dirala baiño.

Sanchez Silva'k forua-ren zuzentasuna ukatu eban. Esaterako Bilbao'k 18.000 biztanle dauz eta ordezeko bat Garni-

kan eta Arakaldo'k 138 biztanle eta bardin.

Mon'ek emon eban urtenbidea foruen alde eta Sanchez Silva'k kendu egin bear izan eban bere esondapena.

SANCHEZ SILVA TA BERROETA ALDAMAR.

Berroeta Aldamar gipuztaz agertu eban argi egoerea: 1844n. urtetik gaur arte ezin izan da aldakuntza gertatu eta aldi orretan 36 ministro asi

Baldomero Espartero (Begarako Liberala)

dira orretan. Espartero'gaz egin zana, ituna, paktoa, izan zan eta bete egin bear da.

Aldi onetan Cayetano Manrique arduratu zan foruen arazo agiritegietan aztertzeke, Balladolid'ko Txantzillarian batez be, eta au izan zan atera eban ondorena Euskalerriko



~ rYegi»ec (Bakarrik joaħ, zan

aldunai bialtzeko: Llorente'k idatzi eban edesti-liburuak jakingarriak txarto artu ebazan eta 1868n. urtean argitaratu eban liburu bat ori ziurtatzeko. Jakingarri orrekaz eta oker dabil Sanchez Silva

1867n. urtean aztertu ziran foruak Senatuan. Oraingo onetan soldaduzkari oratu dautsoe eta Euskalerriko gudariak 2n. reserbara sartzea eskatu eben.

Gure aldunak ori "kontra-fuero" zala esan eben. Sanchez Silva'k maiatzean berba egin eban eta gazte euskaldunak beti izan dirala España'ko guraritzara beartuak esan eban.

Sanchez Silvak ez ekian Luiando'ko gure zugatz maillatuaren edestia!

Lersundi'k be egin eban itzaldi bat Senatuan Sanchez

Silva'ren aurka eta azkenean Arrazola justiziaministroak Espartero'n legea onartu bear zala esan eban eta foruak egokitu artean "status quo" orretan irau.

1968n. urtean iraultzeta sortu zan España'n Erregiñea Lekeitio'n egoala. Foru-aldunak Bilbao n batu ziran aberriaren guraso ziranakaz eta alderdi iraultzaille bien artean, ez batari eta ez besteari, laguntzea erabagi eben eta Aldundiari Mikelete geiago artzeko baimena emon eutsoen. Euskalerrian dana egoan bakean baiña II Isabel'ek muga igaro eta beste aldera joan bear izan eban. Bakarrik. Iñok be ez eutson lagundu.



Pedro Egaña (Foruzale Arabarra)



Manuel Sanchez Silva (Andaluziarra)

Olazar'tar Martin'ek.

BIZKAIKO EUSKEREA ZUZENTZEN

EDO, ALA, NAIZ

Ona emen beste aberastasun bat euskeran, gitxienez Bizkaikoan. Erderazko "o" banatzailea agertzeko errea. Gaurko onetan "edo" eta "ala" kontuan artuko doguz. Badago gaiñera "naiz" edo "nai": "artoa naiz garia onak dira oreka egiteko". Au bai baietza emoteko.

Bizkaiko euskereak ondo bereizten dau noz erabilli "edo" eta noz "ala". Gipuzkoan gauzea ez dago ain argi.

"Edo" erabilten dogu baietzaren edo ezetzaren esaldietan: "Kepa edo Miren datorrela gaur saria artzeko". "Kepa edo Miren ez daitela etorri gaur, saririk ez dago-ta".

"Ala" erabilten da zalantza edo itauna danean: "Zein etorriko da, Kepa ala Miren?". "Ez dakit garia ala artoa artzen dan geiago gure soloetan".

Txarto esanak esaldi oneik: "II ala bizi bardin da". "II edo bizi ez da bardin". "Zein etorriko da, aita edo ama?". "Ez dakit zein dan ohea, artoa edo garia".

Ez naz ausartzen "naiz" erabilteko arauak emoten, baiña esaldi oneik adibide lez ipiñikeran, noizean bein "naiz" etorten izan jat miñaren erpiñera. Ba-dirala arauak dirudi.

ETORRI EGIN DA

Galdegaia garrantzi handia dau gure joskeran. Ez aitzu Bizkaian joskera obeto erabilten dogula beste euskalkietan baiña.

Galdegaia zer dan eta zelan erabilten dan ikasteko urrezko liburua dozu Adolfo Arejitarena. Darabiltzan gramatika-izenak ez nator batera, esaterako "menpeko esaldia" (subordinada esateko), baiña liburua egokia ta ona da, argisua da.

Zeozer esaten dogunean zer itandu dan edo zer dan garrantzitsua jakin bear dogu, eta ori aditzaren aurrean ipinten da, esaldi osoa izanda be bai.

Ona emen adibideak: "Gaur Andoni gabaz etorri jaku etxera". Noz? "Gaur etorri da Andoni etxera gabaz". Nor? "Andoni etorri da etxera gaur gabaz". Egunez ala gabaz? "Gaur Andoni gabaz etorri da etxera". Nora? "Andoni gaur gabaz etxera etorri jaku". Zer egin dau Andonik? "Andoni etorri egin da etxera gaur gabaz".

Aditza bera galdegaia danean ipinten jako ostean "egin".

Izen baten orde esaldi osoa be izan daiteke galdegaia: Zer? "Etxera etorteko esan dau osabeak". Nork? "Osabeak esan dau etxera etorteko". Zer egin dau osabeak? "Etxera etorteko esan egin dau osabeak".

Ete dago bigarren lekua artu bear dauan galdegairik?. Baietz dirudi, baiña ez da erreza arau zeatzak emotea. Bardin ete da galdegaietan aldetik "Gaur Andoni etxera etorri da gabaz" edo "gaur gabaz Andoni etxera etorri da".

Ez dago argi-argi baiña zeozer ba-dago or. "Gabaz" itzak bigarrean garrantzi geiago dauala dirudi.

ZEREN GAIÑEAN?

Gaztelaraz "sobre" itz-aurrekoak "gaiñean" esan gura dau, baiña batzutan autu-gaia be agertzen dau: "Hablar sobre la fe". Bigarren esangura au ekarri ete lei euskerara eta "fedearen gaiñean berba egin" esan ete lei?

Bizkaia guztian esaten da orrelan eta ondo dagoala dirudi, baiña or indar handia dauka Azkue'k bere morfologian diñoan. "Gaiñean" ez dala erabilli bear olakoetan diño eta adibide lez au dakar: Lekeition eleiztar batek au itaundu ei eutson sakristauari: "Zeren gaiñean egin dau berba gaur abadeak?". Eta au izan ei zan sakristauaren erantzuna: "Pulpituaren gaiñean". Orregaitik, aspaldion gure idazleak ez dabe erabilli "zeren gaiñean" gaia agertzeko. Erabilli bear dala? Bego.

Baiña ezetz diñoanok zelan esan "sobre" ori gaiari buruz?

Izen orde dan "tzaz" erabilten da. "Nitzaz zer diñozu?". Baiña ez "fedeatzaz zer diñozu". Izen-ordea ez danean, -z azkenekoa erabilten dabe batzuk: "Fedez berba egin". Beste batzuk "buruz" erabilten dabe: "Fedeari buruz berba egin", edo "buruz"en orde "begira": "Fedeari begira berba egin".

-TEN/-TZEN

Idazleak bere zalantzak izaten dauz oiturazko aditza erabilten. Zelan idatzi "etorten" ala "etortzen", "argituten" ala "argitzen", "indartuten" ala "indartzen"...

Giputzak "-tzen" erabilten dabe larregi, bizkaitarrak, oster, "-tuten" geiegi. Ori diño Azkue "Morfologia" beronen liburu ederrean eta eskualde bietakoentzat araubide bat eskintzen dau, gure ustez araubide oso egokia.

Azkue aundiaren ustez, "-tuten" agertzen danean, "-tzen" biurtu bear da eta besteetan "-ten". Eta ori balio litzake Bizkaian naiz Gipuzkoan. Ona emen adibideak: Kendu-kentzen, maitatu-maitatzen, zapaldu-zapaltzen, emon-emoten, ekarri-ekarten, ibilli-ibiltzen, joan-joaten, ekin-ekiten, jan-jaten, apaldu-apaltzen, goizaldu-goizaltzen, jagi-jagiten, eroan-eroaten, adoretu-adoretzen, indartu-indartzen...

Araubide au oso egokia dala deritxot, baiña ez dakit eritxi bardiñekoak izango diran gure anai-arreba giputzak.

OLAZAR'tar Martin'ek

ABIZENAK

AGARRE: Ona emen oso zabal dabillen abizena, baiña aldakuntza batzukaz: "Agirre", "Agerre". Erri askotan dago olako izena dauan etxeren bat.

Adierazpena: Batzuk abereentzat barrutia dala diño, beste batzuk agirian dagoana.

"Agarretxu" ta "Agirretxu" be ba-dagoz. "Agarrebarri" be bai. Guztiak dira abaro-lekua.

AGINAGA (Ondarribia-1663): Gipuzkoan dago geien, baiña Bizkaian be entzuten da. "Agiña" zugatz bat da eta "Aginaga" zugatza dagon tokia.

Ortik etorria da "Aginagalde" eta aginak dagozan lekuaren ondoan esan nai dau.

AIZPURU(A) (Zumarraga-1383): Aitzaren gaiñean dagoan etxea da eta, abizen lez, Bizkaian eta Gipuzkoan entzuten da.

ALBERDI (Azkoitia-1667): Gipuzkoan dabil zabalen eta "arbela" aitz edo arri-mota bat dan ezkerro, abizen onek arbel asko dagon lekua esan gura dau.

ALBIZU "SU" (Lazkano-1339): Albia bedar legortua da eta abizenak bedar legortu asko dagon tokia esan nai dau.

ALBIZURI (Azkoitia-1484): Gipuzkoatik zabaldu da abizen au eta bedar sikatua (albi) dagon lekua esan nai dau.

ALZIBAR (Donosti-1632): Azpeitian eta Gipuzkoa'ko beste erri askotan zabaldua da eta itz bi daroaz alkartuta abizen eder onek: altza (errekondoetako zugatza) eta ibar edo bizileku ona dan laun-unea, altzak dagozen ibarra.

ALDEKOA (Elorrio-1575): Bizkaian dabil zabalen baiña beste eskualde batzutan be bai.

"Alda"tik etorria izan ezkerro, aldapan dagoana litzake baiña "alde"tik etorria izan ezkerro, "albokoa" esan nai dau.

ALEGRIA (Tolosa-1798): Egoaldeko lau eskualdeetan ugari agiri da eta erriak be ba-daroe izen ori, jatorriz "alegia".

"Ale" bedar mota bat da eta "egia" toki bat.

ALMANDOZ: Naparroako Baztan'en dau bere jatorria.

"Albi" da izena eta bedar zikatua esan nai dau. Gero atzizki bi: "an" eta "doz". Azkenengo au ez da besterik abizenen azkena baiño.

ALTUNA (Urretxua-1624) (Altonaga): Gipuzkoan dago geiago Bizkaian baiño eta ezkiak edo "alamoak" dagozan lekua esan gura dau.

ALZAGA (Aramayona-1666): Bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan toki askotan daukagu abizen au.

Altza edo "aliso" dagoan tokia esan gura dau eta azkeneko -aga indarra emoteko artzen dan atzizkia baiño ez da.

ALZOLA (Azpeitia-1501): Elgoibar'en dago izen au dauan auzo bat eta abizen lez zabal dago.

Altza da alde batetik eta bestetik ugaritasuna adierazten dauan -ola atzizkia. "Ola" aurretik doanean burdiña egiteko edo lantzeko tokia da, baiña atzetik Joanean ugaritasuna: "Uriola, Egurrola".

AMEZAGA (Eibar-1636): Araban dago erri bat izen au daroana eta Bizkaian etxe batzuk, bat Mungian.

Ametza zetagaz aritz-antzeko zugatza da eta esegaz lotan egiten dana edo oso atsegingarria dana: "Gure ametsa".

Ametzaga ametsa edo aritz-antzeko "kejigo" dagon lekua da. "-aga" atzizkia indartzaille.

AMUTXATEGI (Motriko-1750): Au be ametsa'tik dator eta aritz-antzeko kejigo asko dagon lekua esan gura dau.

ANABITARTE: Gipuzkoan geien. "Ana" abereentzat barrutia da eta olako biren ardian dagoan etxea "Anabitarte". Ortik abizena.

ANASAGASTI (Oñate-1477): Bermeo-inguruan ugari abizen au.

"Ana" abereentzat barrutia da eta "Sagasti" sagardia.

ANTXIETA (Urretxua-1648): Gipuzkoako erri askotan eta Elorrian dago izen au.

"Antxi" landara bat da eta azkeneko "-eta"k ugaritasuna dager.

NIKOLAS URIAGEREKA LASA

Bakioko Osinaga (Uxiñá) baserrian 1905. urteko abenduaren Sean jaio zan. 1925.eko kintoa eta 1935. urtean ezkondua da. Orain, 95 urte daukaz eta Bakioko bizilagunik zaarrena da gure Nikolas.

ZER - Orrenbeste bostegaz zeure bizitzan, bota bostekoa, Nikolas. Olantxe agurtu genduan alkar Nikolas eta biok itsaso ganean daukan Bakioko Bastei (Luzarraga Goikoa) baserri ederrean. Azaldu zure bizitzea azal-azaltetik besterik ez bada be.

NU - Amairu urte bete arte Hennanoetako eskolara ibili nintzan. Bete nituanean, etxera, baserrian lagundutera joan bear izan neban. Urte bi inguru bertan egin neban. Mutiko kaskondotxua be banintzala eta gurasoeri lagundu bear jakela-eta, basobearrak eta San Pelaioko bidea egiten, jo eta ke, bearrean ibili nintzan. Gero, soldadizkan Bartzelonan "Dedalo" egazkinontzian iru urte emon nebazan. Andik lizentziatu eta auzoko Mateo Bilbao merkanteko makinisteagaz barriro itsasora. Itsasoan nengoala, Bidegane bidea egin jen "Ganboa y Domingo" etxegileko ugazabearen mezua non artuten dodan, Asturiasen urjausi bat egin bear zala-eta, beragaz joan bear nebala, 1935. urtean Katalina Ormaza neska polit eta lirainagaz, Basteiko etxekoandrea, ezkondu eta ordurik, aamen, Bastei baserrian bizi izan naz zoriontsu.

ZORIONTSUA IZATEKO BESTE BATZUK IRAINTZEN DAUZANA, ONEIK BE ZORIONTASUNAREN BILLA DABILTZANEAN, ORI EZ DA SEKULA IZANGO ZORIONEKOA.

BUDA'K

ZER - Bai, burua argi dozula, Nikolas!

NU - Buruan eta "errotan" ez dot faltarik, Jainkoari eskerrak. Gaztaroko eta antxinako gorabeerak, egun eta guzti esan neizuz. "Errotea", barriz, zer esanik be ez, jateko gogo, kendu bakoa.

ZER - Non igaro zenduan gerratea?

NU - Bakiotik ez neban urten. Kortako satspilopean txokotxu bat eginda neukan. Egunez an eta gauez basoan.

ZER - Ez da gozo-gozoa izango satspilopeko abia, ezta?

NU - Ez, ez zan gozo-gozoa izan, baina bai kanposantukoa baino obea.

ZER - Bazeunkan lurgintza andirik?

NU - Bakioko lurgintzea ez da berez andia, baina bai aberatsa. Lau bei, txaal batzuk, untxi, oilo eta olango batzuk etxerako eta zeozer salduteko be bageunkan. Soloetan patata, arto eta garia. Etxeak ekarretetik polito konponduten gintzan, goserik ez, beintzat. Garia eta artoa errotan eio eta aurrera. Orduan ez egoan ez "bei zororik" ez "aftosarik" ez kolesterolik,... gauza garbiak jaten genduzan-eta, bata bestea baino ederragoak.

ZER - Errotak aiatu dozuzan ezkerro, leengo baten, eztabada bat sortu zan gure artean eta nonork esan jen Nikolasek atarako gaituala zalantza orretatik. Zenbat errota dagoz Bakion? Ba-dakizu?

NU - Jakingo ez dot, ba! Izen, ezizen eta guzti esango deutsudaz. Bakion amabi errota izan dira, lau San Pelaion eta zortzi Basigon.

San Pelaiokoak:	Urkitxi:	Zorrak pagau.
	Ureta:	Aurten ez.
	Azeretxoko Errota:	Doala beerantz.
	Olabarri:	Ni emen nago eta.

Basigokoak:	Errotabarri:	Gu asko gara eta.
	Bekoerrota:	Erri guztia neuretzat.
	Telleria:	Jatako urak neuretzat.
	Eitzaga:	Emen siku dago eta.
	Olatxu:	Brum, brum, brum.
	Kurtzikene:	Txuli, txuli.
	Goikolea:	Txispaz, txispaz.
	Kakuene:	Dinbilin dan.

ZER - Bazkaltzeko ordua be bazala-eta, agur beroagaz ateragino lagundu euskun Nikolasek.

Jon Aingeru GOIKOETXEA

Berbalapikoa:
(B.b.=Bakioko berbea)

soldadizka = soldaduzka. (B.b.)
egazkinontzi = egazkinak eroaten dituan itsasontzia.
jen (*dxen*) = eban. (B.b.)
urjausi = argi-indarra egitekoa.
lurgintza = labrantza.
untxi = koneju.
gintzan (*gintzen*) = gintzazan, ginan. (B.b.)
eztabada = diskusino.
zalantza = ezbai, duda.

SIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

FERMIN KONTXABALEKO

GAUEKA taldeak eratuta, Soinu eta Panderojoleen Eguna izan genduan Bakion joan dan zemendiaren 24an. Bertara batu ziran Gipuzkoa eta Bizkaiko soinuariak omenaldi antzekoa egin eutsoen gure Fermineri. Izan be, Fermin soinu zale andia be andia izan da beti. Aitatatik ei jatorko zaletasun ori, berak esan deuskunez. Erriko okina izan dana pozarren egon zan egun atan. 66 urteko erriko gizon onek biotz-biotzez eskerrak emon gura ditu berari egindako omenagaitik. Baina ain daukan barruan sartuta soinua, ze barru ori geugaz ustutea onartu euskun, arnasa apur bat artu aal izateko edo.

ZER - Egin eutsuen omenaldian Gipuzkoa zein Bizkaiko soinuari eta soinuazale asko batu ziran. Zu zeu be soinuari izan zara eta soinuazale andia be bazara. Zer dala eta zaletasun ori? Nondik jatortzu?

FB - Ori zaletasunori, neure pentsamentuan, odoletik jatort. Gure aita gazte-gazteta Tik izan zan soinuazale. Gero, belarriz, berak bertara ikasita, soinuajole izan be bazan. Urte areetan polito jotzen jen. Gaur egun, obak badagoz. Erromerietan, lantzean ezkontza baten eta olan ibiltzen zan jotzen. Niri ortik jatort zaletasuna. Neuk be soinuak daukadaz etxean eta zeozer jotzen badakit, apur bat, baina soinuajole izatera ez naz eldu. Aitatatik daukat nik zaletasun ori. Ama be soinuazale eta jantzaria izan genduan. Bizkaiko jotea, ASTIROKOA, egiten jasekoa izan genduan ama.

ZER - Nortzuk izan ziran orain dala 50 urteko Bakio eta inguruetako soinuariak? Nondik nora ibiltzen ziran jotzen?

FB - Nire gazte denporan ezagutu dodazanak, ba Patxuel, eta, gero, Larroin Bixente Gorosti aita-semeak, errementariak. Aita, soinu txikiagaz ibiltzen zan, leenengo, eta andiagaz, gero. Soietzeko Eugenio soinu andiagaz ibiltzen zana be ezagutu dot. Bakioke semea Tomas zana be bai, Bermeon Arenas tabernea euki dauana. A, leenengo, soinu txikerragaz ibilikoa eta, gero, soinu andia erosi eta ikasikoa. Areetan urteetan, ikasi bako, belarriz joteko, ba, soinuajole politak izan ziran. Aamen Bakio aldean, nik ezagutu ez arren, gure aitak esaten jen soinu txikerragaz Seberi Mintegi ona ei zala. Gaztetan il zan. Bermeo aldean, Almikeko semea dan Barrrena ezagutu dot, orain Larroin bizi da. Arek sano ondo jotzen ditu soinu biak, txikia zein andia, belarriz jo be. Arratia aldean be ezagututen dodaz, ba, Patxi Bernaola, "Káarakol" esaten eutsoen. On-ona izan da, gaur egun be bada. Dimarra dan Martin Olabarri. Aamen inguruan, ba, Andrakako Rufino Arrola ezagututen izan dot. Gazteak be bai. Gero, Bilbon Zelestino Rodriguez ezagutu dot. Ona izan zan. Arek musikea ekian eta soinu txikia zein andia jotzen jezan. Erromerietan-eta ibiltzen zan. Arek be soinu barriak egiten jezan.

ZER - Zelan ikusten dozu soinuaren mundua, gaur egun? Zelan ikusten dozu soinuaren etorkizuna?

FB - Soinuaren etorkizuna, gaur egun, ondo ikusten dot. Ze, gaur egun, zaletasuna daukan gazteak ondo ikasten dau jotzen, maisua, solfeoa... bear dan moduan ikasten dau jotzen, bai soinu txikerra bai soinu andia. Eta egon badagoz soinuajole onak, bai soinu txikian eta bai soinu andian be. Gipuzkoan-eta, soinuajole onak ezagututen dodaz, ondo preparauta dagozanak.

ZER - Aitatu dozuz soinu txikerra eta soinu andia. Ze alde dago bien artean?

FB - Soinu txikerrak, esango neuke, 23 notagaz 46ko eskalea egiten dau. Piano-soinuak edo botoidunak 46 nota daukaz. Soinu txikerrak zarata bat dauka kanpora eta beste bat barrura. Besoari eragin bear izaten jako, eta orixe aldeori dauka. Soinu andiak ez dauka auspoan aldakuntzarik, kanporantza nai barrurantz, bardin-bardin. Txikerra joteko, orixe, beso ezkerri barrura eta kanpora mobidu eragiten jako. Orregaitik soinu txikerrari diatonikoa esaten jako, eta besteari kromatikoa. Leenengo soinu andia kromatikoa izan zan, botoiduna, eta andik urteetara soinurako laguntzinoa agertu zan, ezkerrean bardina, baina eskoian organoa. Orreri "piano-soinua" esaten jako. Soinuajoleak esaten badau: "ni soinuajole naz, soinua jotzen badakit". "Ze soinu dakizu jotzen zuk?", esan bear jako berari. Arek erantzun bear: "ba, nik piano-soinua edo botoiduna, edota txikerra".

ZER - Soinu txikia dala eta ez dala, "trikitixa" berbea erabiltzen dabe askok. Ze eritxi dozu zuk orren ganean?

FB - Bai, nik ori berbaori, soinu txikerrari "trikitixa" esatea, inoz ez dot ontzat artu. Orrek berbaorrek, "trikitixa berba orrek", orain dala urte asko urten jen. Zumarragako soinuari batek beraren buruari ezizen ori imini eutson, bera dala "Zumarragako Trikitixa". Eta tira, ondo dago, bera konformau izan bada orregaz... Baina, orain soinuari guztieri "trikitilari" esatea, panderojoleari be bai... Geien-geien berotuten nauana da soinu txikerrari "trikitixa" esatea. Ze ez da "trikitixa", SOINU TXIKIA baino. Ez dot orixe ontzat artuten.

ZER - Zelan esaten jako soinu txikerra jotzen dau-nari?

FB - Orain "trikitilaria" berbea entzuten da. Baina ori beti izan da, soinu txikia zein soinu andia jotzen dauana, soinuajolea edo soinularia. Gero, soinulari orrek, ze soinu jotzen dau orrek? Orduan esaten da, ba, orrek soinu nagusia edo soinu txikia edo biak jotzen ditu. Ez "trikitixa".

ZER - Zelan esaten jako alboan areri lagunduten deutsonari?

FB - Gure guraso, gure aitita-amamen denporan biko-tean gitxitan ibiltzen ziran. Gure aitak esaten eutsen: soi-

nujolea eta panderojolea. Bikote bat, soinujolea eta panderojolea.

ZER - Soinu txikerra jantzarako jotzen da, batez be. Gaur egun, emoten dau soinulari askok arinegi jotzen dabela. Sarritan, jotzen dabenean, jantzariak eurak ez dabetzala kontuan artuten emoten dau. Zer deritoxozu zuk orreri?

FB - Badagoz batzuk arin jotzen dabena. Giputzek "azkar" esaten dabe. Eta badagoz jantzariak astirotxuago jantzen egiten dabena. Orreek ezin dabe jantzen egin besteak arin jotzen dabelako. Badagoz soinulari batzuk astirotxuago, ondo markauta, jotzen dabena. Arin jotea ez dot topetan ondo. Atzamarrak arin darabiltzue, jantzarako danean. Entzun egiteko gauza ederra da, eta polita, baina jantzariak, jantzen egiteko, errormerietan edo edozein lekutan, tío!, ez dira ondo konponduten. Ori utsori badago. Osterantzean, gaur egunean, soinu bizia topetan dot ondo-ondo.

ZER - Aspaldion, "trikitixa" jantzea egingo dabela eta ez dabela egingo entzuten da txapelketa, errormeri eta olangoetan. Badaukazu zuk orren ganean esatekorik?

FB - Ori berbaori ez dot ondo artuten. Bizkaiko jotea, soinua Bizkaira sartu danetik gora, gitxienez, -ze Bizkaira leenengoz Arratia aldera etorri zan- emengo jotea, kantua daukan jotea beti izan da, aamen, ASTIROKOA. Beste erri batzuetan beste izen bat be esaten izan deutsoe. Geure ondoko erri baten, gaur arte, esaten izan deutsoe: ZABALETAKOA. Kontu artu. Ez dago txarto esanda, ze zabaletara egiten da jantzen. Mita bider okerrago dago "trikitixa" berbea. Beste erri batzuetan ORRIAZPIKO JANTZEA be esaten izan deutsoe. Gipuzkoa aldean, BIZKAI DANTZA, ze Bizkaitik urten jen. Baina jatorrizko izena, nik esango neuke, eta alan izan da, ASTIROKOA. Gero, beste alde batetik, PORRUSALDEA edo ARINEKOA dago. Gure gurasoen denporan, soinuan, FANDANGOAgitxi erabilten zan edo bapez. Gaur egun, zorionean, FANDANGOAbil soinuaren artean sarritan, eta gauza polita eta ederra da. Alandaze, orreek berbok politago esan bearko leukeez euskeraz: ASTIROKOA eta PORRUSALDEA, FANDANGOAbil eta ARINEKOA.

Txapelketetan-eta, soinu txiki eta panderojoleenari "trikitixa" esatea nik, eta nire moduan beste askok ez dau ontzat artuten. Programetan eta aurkeztuten dabilenak esan bearko leuke: "Soinu Txiki eta Panderojoleen Txapelketa". Zeintzuk izango dira bertan jo bear diranak? Ba, ASTIROKOA eta PORRUSALDEA, FANDANGOAbil eta ARINEKOA. PORRUSALDEA eta ARINEKOA bat dira. Leenago. gure gurasoen denporan, soinuan ez zan FANDANGOrk egoten. FANDANGOAbil txistua eta dandolinean erabilten zan bakan^{ik}, kanturik ez daukan jotea da. Gaur egun, ostera, soinuan dabil eder eta polit, ibili be. Bardinketarik egon ez daiten, ASTIROKOA eta PORRUSALDEA, FANDANGOAbil eta ARINEKOA esaten dogu guk. FANDANGOAbil eta ASTIROKOAkon-

pas bardina dauke, balsaren konpasa. Giputz batek egin deust, oraintsu, aurrealdean andra bategaz jantzen, kantuan baltzingoa eta kantua amaituta, soltean. Leenagoko Bizkaiko eran. Bizkaiko jotea ASTIROKOA izenekoa da, ez, orain esaten dabena moduan, "trikitixa".

ZER - Esan gura dozu besterik?

FB - Gipuzkoan urtero egiten da soinujole edo panderojolearen baten aldeko omenaldia, jaialdi ederra. Bein baten, ori jaialdiori aurkeztuten egoan lagunak esan jen: "orain dator trikiti bat". "Trikiti" berba ori baino politago, ederrago izango litzake esatea: "orain dator bikote bat soinu txiki eta panderoagaz, eurak dira urlia, sandia edo berendia". Gipuzkoako beste erri baten egin zan alango jaialdi eder bat, soinujoleak, panderojoleak, jentea jantzen, gauza ederra, asko gustau jatan. An aurkeztuten egon zan neskatxu politik esan jen: "Trikitixa Bizirik!" Nik eta nire moduan beste batzuk ez jeen ondo artu berba ori. "Trikitixa Bizirik!" barik, ederrago eta politago izango zan: "Soinu Txikia Bizirik!" Berba garbia, euskerearena.

Beste alde batetik, Zaldibarko Jose Mari Iriondori batzuk esaten eutsoen: "Zaldibarko Trikitixa". Zaldibarko Jose Mari Iriondo ez da "Zaldibarko Trikitixa", neuretzako, soinujole ona baino, soinujole andia, gorengo mailakoa.

ETB Zan egiten zan, orain dala denporatxua, "-ROMPECABEZAS" programea. Bertako aurkezleak, Juanma Lopez Iturriaga, leiakide bateri egin eutson itauna: Zein da Kepa Junkerak jotzen dauan musika tresnea? Eta besteak, ago-betean esan jen: "Trikitixa". Eta Juanmak erantzun eutson: "Ez. Akordeoi diatonikoa". Au da, soinu txikerra.

Beinola baten, euskalduna ez dan soinujole andi, gorengo mailako batek esan jen: "Nondik atara dabe euskaldunak "trikitixa" berba ori? Izatez, ez dago olango izena daukan musika tresnarik. Egon badagoz soinu kromatikoa eta diatonikoa".

Orregaitik guztiagaitik ba, eskatuten dot, ea danon artean berba orreek aldatuten doguzan eta beti izan diranak erabilteko. Ze lotsagarri topetan dot gazteak eta gazte ez diranak be, soinuaren bat ikusten dabenean, "aor trikitixa" esatea. Soinu ez da "trikitixa", soinu SOINU da. Nire berbak baten bat mindu badabe, parkatu deistala.

ZER - Eskerrik asko, Fermin.

Iniaki MARTIARTU

Berbalapikoa

(B.b. = Bakioko berbea)

jen (*dxen*) = eban. (B.b.)

jeen (*dxien*) = eben. (B.b.)


jezan (*dxesan*) = ebazan, zituan. (B.b.)

Larroi (*Lárroi*) = Larrauri. (B.b.)

EUSKALDUN BARRIENTZAT



zazpi erru aurki tu!





Batu zenbaki onek!

ZORTI ALDAKETA



Nundik joango da gizona, bere astoa artzeko??



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



kultura

sortzen dogu

BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²